

TAULARA

MIKROANTZERKI LEHIAKETA

TAULARA MIKROANTZERKI LEHIAKETA 2024

OINARRIAK

1.- SARRERA:

Izaskun Arrue Kulturgunearen helburu nagusien artean euskarazko kultura sormena suspertzea dago. Xede horrekin **sortzaileei** egitasmo eta jarduera ezberdinak eskaintzen dizkie eta testuinguru honetan kokatu behar da **Taulara** lehiaketa.

Bestalde, ekimen honen bidez antzezlanak ekoizten lagundu nahi da, baita Izaskun Arrue Kulturgunearen programazioaren barruan hautatutako proiektuen emanaldiak antolatu. Hala, trebakuntzaz eta hedapenez haratago, tartean diren sorkuntza eta ekoizpen atalak ere jorratu nahi dira ekimen honen bitartez, eta horrela kultur katea bere osotasunean burutu.

Egitasmo honek formatu txikiko antzerki lan laburrei plaza berri bat eskaini nahi die. Egitasmoa bi fasetan zatituta egongo da:

- Lehenengo fasean, interesdunek proposamenak aurkeztu beharko dituzte eta, behin epea amaitutakoan, lanen aukeraketa egingo da.
- Bigarren fasean, aukeratutako lanak prestatzeko eta taularatzeko epea irekiko da. Lan irabazleak **2024ko udazkenean, azaroaren 28an**, aurkeztuko dira Izaskun Arrue Kulturgunean.

Lehiaketak bi kategoria izango ditu:

- Lehenengo kategorian, jatorrizko gidoi onena sarituko da.
- Bigarren kategorian, aldiz, jatorrizkoak ez diren, eta 2022tik hona sortutako gainerako gidoiak hartuko dira kontuan.

Taulara lehiaketan guztira **3.500€** banatuko dira **hiru sari** ezberdinetan.

- Epaimahaiak, lehenengo kategorian, **jatorrizko lan onenari 1.500€-ko saria** egotziko dio.
- Horrekin batera, **750€-ko beste bi sari** banatuko dira, bigarren kategorian.
- Hirugarren sari bat egongo da: aurkezpen egunean hiru irabazleetatik batek **publikoaren saria** jasoko du eta **500€** hartuko ditu.

Dokumentu honetan daude zehaztuta deialdiaren oinarriak, eta **komenigarria da arretaz irakurtzea**. **Taulara** deialdira proiektuak aurkezten direnean oinarri horiek onartzen direla ulertuko da.

2.- NORI ZUZENDUTA DAGO?:

Deialdia Euskal Herri osoko antzerki munduko **sortzaileei, aktoreei** eta **taldeei** zuzenduta dago.

3.- HELBURUAK:

Egitasmo honen **helburu nagusiak** honako hauek dira:

- **Antzerki munduko norbanakoei eta taldeei antzezlan laburrak garatzeko aukerak eskaintzea.**
- **Euskal Herriko euskarazko antzezlan laburren sormena suspertzea.**

Helburu horiek ez ezik garrantzi handia duten beste helburu batzuk ere kontuan hartzen ditu egitasmo honek:

- Arabako biztanleei kultur ekitaldiak eskaintzea eta eskuragai jartzea
- Publikoari bozketa bitartez parte-hartzeko aukera ematea

4.- ANTZEZLAN MOTAK

Deialdi honen baitan **formatu txikiko** antzezlanak eta bakarrizketak kontuan hartuko eta baloratuko dira.

5.- EGITASMOA eta EPEAK

Egitasmo hau bi fasetan banatuta dago:

1. Deialdia

I. Lanketa: proposamenak aurkezteko epea **irailaren 30**era arte egongo da zabalik. Guztira 10 aste izango dira, eta hortik aurrera ez da proposamenik onartuko.

Nola aurkeztu proposamen bat?

Proposamenak aurkezteko honako inprimakia bete beharko da.

Zein baldintza bete behar ditu aurkeztutako proposamenak?

A. Kategoria – Jatorrizko gidioiak

- Soilik hartuko dira kontuan deialdi honetarako beren-beregi sortutako lanak. Beste lan batetik egindako itzulpenak edo moldaketak ez dira jatorrizkotzat joko. Ezta beste lehiaketa batean aurkeztutako lanak ere
- Mikroantzerkiaren gidioia osorik aurkeztu beharko da. Ez dira gidoi zatiak edo ideiak bakarrik onartuko
- Gidoiarekin batera, mikroantzerkiaren lagin bat aurkeztu beharko da bideo formatuan (5' ingurukoa)
- Formatu txikiko antzezlanak izan behar da, eta ez dute atrezzo handirik beharko.

TAULARA

MIKROANTZERKI

LEHIAKETA

IK
Izaskun Arrue
Kulturgunea

- Gutxienez 15 minutuko iraupena izan beharko dute, eta gehienez 30 minutukoa
- Euskaraz landutako lanak izan beharko dira.
- Ez da hitzik gabeko lanik onartuko.

B. Kategoria – Jatorrizkoak ez diren gidioiak

- **2022ko urtarrilaren 1etik** aurrera sortutako lanak izan behar dira. Ez da lan zaharragorik onartuko
- Mikroantzerkiaren gidioia osorik aurkeztu beharko da. Ez dira gidoi zatiak edo ideiak bakarrik onartuko
- Gidoiarekin batera, mikroantzerkiaren lagin bat aurkeztu beharko da bideo formatuan (5' ingurukoa)
- Formatu txikiko antzezlanak izan behar da, eta ez dute atrezzo handirik beharko
- **Gutxienez 15 minutuko** iraupena izan beharko dute, eta gehienez **30 minutukoa**
- Lanak **euskara** hutsean izan beharko dira.
- Ez da hitzik gabeko lanik onartuko.

I. Aukeraketa: Behin proposamenak jasotzeko epea amaituta, proiektuak ondorengo irizpide eta prozeduren arabera ebaluatuko dira:

- ✓ Epaimahaiak kontuan hartuko du lanaren kalitatea eta antzezgarritasuna (50 puntu)
- ✓ Egitasmo honetarako propio sortutako lana izatea (20 puntu)
- ✓ Genero ikuspegia eta emakumeen presentzia (20 puntu)
- ✓ Gaztetasuna: 35 urtez beherako gazteen proposamenak izatea (10 puntu)

Epaimahaiak, irizpide hauek kontuan hartuta, proposamenak ebaluatu eta hiru lan hautatuko ditu. Epaimahaiak **astebeteko epea** izango du proiektuen aukeraketa egiteko. **Hiru proiektu** aukeratuko dira. Horietako bat gutxienez **Arabakoa** izango da.

1. Aurkezpenak

- Urriaren 3tik aurrera, aukeratutako proposamenek **8 astetako** epea izango dute antzezlan prestatzeko (azaroaren 28ra arte).
- Proposamen irabazleek lortu beharko dituzte antzezlanaren aurkezpenerako behar dituzten beharrezko materialak.
- **Azaroaren 28an** hiru antzezlan irabazleen aurkezpen publikoa egingo da **Izaskun Arrue Kulturgunean**.
- Saioak eraikinaren hiru **gune** ezberdinetan egingo dira.
- Antolatzaileak **bi pase** egitea erabaki dezake. Honek ez luke baldintzetan aldaketarik ekarriko.
- Publikoak gustuko duen antzezlan bozkatuko du. Bozka gehien lortzen duen antzezlanak **publikoaren saria** jasoko du (ekintza honen bitartez publikoaren parte-hartzea bultzatu nahi da).

6.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdian parte hartzeko baldintza hauek bete beharko dira:

- ✓ Parte-hartzaileek 18 urte beteta izatea
- ✓ Antzerki munduko sortzaile, aktore edo taldea izatea

7.- EGITASMOAREN DIRU-POLTSA

Taulara egitasmoan guztira **3500€** banatuko dira **3 sari ezberdinetan**.

- Epaimahaiak jatorrizko gidoi onenari **1.500€ko** sari bat emango dio
- Horrez gain, **750 €ko** beste bi sari banatuko da.

TAULARA
MIKROENTZERKI
LEHIAKETA

IK
Izaskun Arrue
Kulturgunea

- Bestalde, **publikoaren saria 500€koa** izango da, aurkezpenaren egunean bertan ikusleek erabakiko dutena.

8.- ORDAINKETA MODUA

Ordainketa aurkezpen publikoaren ondoren egingo da.

9.- XEDAPEN OROKORRAK eta KLAUSULAK

Ziurtzat jotzen da aurkeztutako proiektuaren egilea eta titulartasuna bermatuta daudela, eta ez direla urratu beste inoren obraren jabetza intelektualaren eskubideak.

Saritutako lanak ondoren beste leku batzuetan antzeztuko balira, publiziterako euskarri grafiko eta ikus-entzunezko guztietan sari hau jaso duela aipatu beharko da.

10.- LEGE-OHARRAK

Hemen irakurri ditzakezu

11.- INFORMAZIO GEHIAGO ETA HARREMANA

Egitasmoari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, eta **Taulara** egitasmoaren gaineko beste argitasun eta kontu praktikoko batzuk lortzeko, gurekin jar zaitezke harremanetan kultura@lazarraga.eus helbidean.